

# GIL 94 La Arena hondartza eta dunak



Hondartzaren itxura. Mendebaldean, Punta del Castillo, eta, ekialdean, Punta Lucero.

## Kokapena

- **Koordenatu geografikoak:**

Lat.: 43° 20' 51,66" N  
Long.: 3° 6' 57,90" W

- **UTM koordenatuak:**

X: 490.591,72 m  
Y: 4.799.432,21 m



## Nola iritsi

Zierbenako San Mames auzotik autoz abiatuta, BI-3794 errepidea hartu La Arena auzo aldera (Zierbena), hondartza osteko aparkaleku handira iritsi arte. Bestela, Muskizeko udalerriko herrigunetik ere joan daiteke. Autoa hartu, eta BI-3796 errepidetik joan, estuarioaren eskuineko ertzetik, Petronorren birfindegiaren instalazioen ondotik, hondartzako aparkaleku handiraino.

## Deskribapena

Albo banatan kareharrizko eta kareharri tupatsuzko labarrak dituen hondartza ahokatu bat da. Labarrok Behe Kretazeokoak dira: Punta Lucero da ekialdekoa, eta Punta del Castillo, mendebaldekoa. Estuario-bokaleetan eratu ohi diren hondartzen moduko bat



Hondartzaren ekialdea eta hondartza atzeko dunak.

da, morfologia luzekoa eta profil maskor-itxurakoa. Haizearen eraginez, duna aktiboen eremu bat sortu da hondartza atzean. Garai batean, padura-eremu zabal batek ordezten zituen dunak, estuarioan gora, baina, 1970az geroztik, Petronor birfindegia eta enpresa laguntzaileen kokaguneak erabat hartu ditu.

Hondartza 960 m luze da, eta ia 9 ha-ko azalera hartzen du itsasgoran; 34 ha-koa, itsasbeheran. Oso adierazgarria da harearen kolorea: iluna da, ibaiak eta estuarioak ekarritako burdin mineralen eraginez. Ez dugu ahaztu behar Somorrostro aldeko meategiak ustiatzen hasi zirela XX. mendearen hasieran. Hondartzaren ekialdeak maskor-itxura du, eta hondoa oso malkartsua: badiaren hondoa izan da beti. Hondartzaren erdialdeak eta mendebaldeak, berriz, sedimentu-metaketa batzuk dituzte, estuario-bokaletik eratorriak.

Hondartza atzean dauden dunek 10,4 ha-ko azalera betetzen dute, eta, gaur egun, Euskal Herrian egoera erdinaturalean dagoen duna-azalera handiena da. Metaketa eoliko horri asko eragin zioten sarbide gisa egindako bideek eta aparkalekuak, baina, gerora, asko handitu da harea-ekosistema horren azalera, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Zierbena eta Muskizeko udalek ingurumena leheneratzeko 1980ko hamarkadaz geroztik egin dituzten lanei esker.

Bokalearen eremu hori da estuarioko multzo guztian ondoen kontserbatu den ingurua, nahiz eta era berean giza presio handia jasaten duen; izan ere, aisialdi-eremu oso arrakastatsua da, eta jende ugari inguratzen da bertara, udan.

## Behatzeko punturik onena

*In situ.*

## Erlazionatutako GILak

- **Geografikoki:** GIL 140, GIL 149.
- **Gaiari dagokionez:** GIL 91, GIL 92, GIL 93, GIL 95, GIL 96.



La Arenako hondartzaren eta dunen zeharkako irudia. 1965.



Hondartza, dunak eta Barbadun ibaiaren padura ondo seinalizatuta daude. Kalitateko informazio-panel batzuk daude, sistemaren balio ekologikoaz ohartarazten duen informazioa dutenak.



Landaretzaz estalitako duna bat. Bertan dagoen panelak informazioa eta balioa jakinarazten ditu.

## GIL-aren balorazioa

| Balorazioa                            |                                 | Baxua | Ertaina   | Altua       | Oso altua |
|---------------------------------------|---------------------------------|-------|-----------|-------------|-----------|
| <b>Interes zientifikoa</b>            | Geomorfologikoa                 |       |           | ●           |           |
|                                       | Hidrogeologikoa                 |       |           |             |           |
|                                       | Tektoniko/Estrukturala          |       |           |             |           |
|                                       | Estratigrafiko/Sedimentologikoa |       |           | ●           |           |
|                                       | Paleontologikoa                 |       |           |             |           |
|                                       | Petrologikoa                    |       |           |             |           |
|                                       | Mineral-hobiak                  |       |           |             |           |
|                                       | Beste batzuk                    |       |           |             |           |
| <b>Interes ekonomikoa (erauzketa)</b> |                                 |       | Iraganean | Potentziala | Martxan   |
| <b>Interes kulturala:</b>             |                                 |       |           |             |           |
| <b>Oharrak:</b>                       |                                 |       |           |             |           |

## Bibliografia espezifikoa

- Aizpiri, F. (1985): *Estudio de la playa de La Arena: estado actual, factores condicionantes, soluciones previsibles*. Bizkaiko Foru Aldundiaren ikerlan argitaragabea, 65 or.
- Cearreta, A., Alday, M, Irabien, M.J., Etxebarria, N. eta Soto, J. (2008): *“Modern conditions and recent environmental development of the Muskiz estuary: historical disturbance by the largest oil refinery of Spain”*. Journal of Iberian Geology 34: 191-213.
- Bizkaiko Foru Aldundia (1990): Bizkaiko interes geologikoko gunekak. Kultura Saila, 270 or.